

ADDE 20 URTEKO IBILBIDEA

EUSKAL HERRIKO DANTZA PROFESIONALEN ELKARTEAREN KOMUNIKATUA

2003. urtean, kulturaren euskal planaren bileretan parte hartzen zuten Euskal Herriko dantza profesionalak kolektibo gisa eratzeko beharra ikusi zuten, sektorearen interesak defendatzeko eta unean uneko kultura-politikan eragiteko. Horrela jaio zen ADDE. 2023 honetan 20 urte bete dituen Euskal Herriko dantza profesionalen elkarte.

Gaur egun, 120 bazkide baino gehiagorekin, ADDEk hainbat esparru eta diziplinatako profesionalak biltzen ditu, profesionalen lehen belaunaldiak eta belaunaldi berriak, eta hasierako helburuei eusten die: kultura, lan eta hezkuntza politikan esku hartzea eta eragitea, sektoreko pertsonen eta eragileen artean kohesionatzea eta lankidetzan aritzea eta dantza zabaltzea eta ikusaraztea.

ADDEren aurkezpen ofizial gisa lehen ekitaldi publikoa 2009ko apirilaren 29a izan zen, dantzaren nazioarteko eguna zela eta. Harrezkero, urtero, apirilean, egun hori aprobetxatu dugu elkarteak egindako lana jendaurrean erakusteko.

Aurten, gure 20. urteurrena dela eta, dokumental batean jaso nahi izan dugu gure historia, hainbat profesional eta eragileren testigantzen bidez bi hamarkada hauetan egindako lana bertatik bertara ezagutzeko.

5 kapituluko dokumental bat, honako gai hauei buruz hitz egiteko: hastapenak, kolektiboaren garrantzia, beste eragile batzuekiko eta erakundeekiko elkarriketa, elkarlana eta lankidetzak, ADDEk euskal dantzaren ekosisteman duen papera eta, azkenik, dantzaren sektorearen etorkizunerako nahiak.

Baina gaur egun ere sektore prekarioa da lan-arloan, Kulturaren Euskal Behatokiak 2022an egindako txostenean jasotzen den bezala. *Profesionalen artean askotariko egoerak identifikatu diren arren, oro har, prekaritate-maila esanguratsua da. Inkestatuen % 44k adierazi dute ezegonkortasun-egoeraren bat bizi dutela. Inkestatuen % 13,4k bakarrik adierazi dute dantza-munduko lan-egonkortasunerako bidea arina izan dela. Sektore artistikoen egiturazko ezaugarria den lanaren aldizkakotasuna agerian geratu da, inkestatuek batez bestean egindako hilabete kopurua 8,4 baita. Nabarmentzekoa da diru-sarreraren maila txikia dela. Inkestatuen % 46,4k 10.000 euro baino gutxiago eskuratzen dute dantzaren sektoreko jardueratik.*

Datu horiek egoera kezagarria islatzen dute, baina ez bakarrik lan-mailan beste alor batzuetan ere gauzak hobetu behar ditugu, hezkuntza arloan adibidez, dantzaren presentzia erregimen orokorreko ikasketetan, lehen eta bigarren hezkuntzan eskatu nahi dugu, REDE proiektuan lantzen ari garen bezala. REDE (Estatuko dantza eta hezkuntza sarea), APDCk (Kataluniako dantzaren profesionalen Elkartea) eta ADDEk bultzatutako proiektua. Estatuko dantza profesionalen beste 7 elkarte ere parte hartzen dute, Assitej eta Danza + Investigación elkarteak gain.

Araubide orokorreko hezkuntza-sisteman dantzak duen presentziarekin, besteak beste, haurtzarotik kultura eta dantzarako sarbidea bultzatzen ariko gara, eta, gainera, publiko sortzeko eta sektoreko etorkizuneko profesionalak garatzeko lehen oinarriak ezartzen ariko gara.

Sorkuntzaren eta programazioaren esparruan. Publikoak sortzeko eta dantza-programazioari laguntzeko programak behar ditugu antzokien eta erakundeen partetik. Mota guztietako publikoak gure konpainien eta sortzaileen sormen-proposamenen aniztasunera iristea bultzatzeko programak, kulturarako sarbidea demokratizatuz eta gizartean duen balioa emanez.

Eusko Jaurlaritzaren 2028 Kultura Plan Estrategikoa aipatu nahi dugu. Kulturarako plan bat sortzea beti albiste ona bada, azpimarratu nahi dugu garrantzitsua dela dantzarako plan espezifikoak, plan errealistak eta gauzagarriak eraikitzea gure sektorerako ekintza zehatz eta espezifikoekin, prekarietateari aurre egiteko premiazko neurriak eta profesionalizazioari laguntzeko neurriak behar baititu. Erakundeen konpromisoa jasoko duen plan bat, era horretan potentzial handiko eta indar handiko sektorearen garapena bultzatuz, dantzak asko baitauka eskaintzeko Euskadiko gizarteari eta garapen ekonomikoari.

